

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Erroibar



Aurkibidea

Udalerria: Erroibar

Sarrera



Zangozako merindadeko udalerria, Aintzinoa, Ardaitz, Aurizperri, Erro, Esnotz, Lintzoain, Loizu, Mezkitz, Orondritz, Bizkarreta-Gerendiain eta Zilbeti herriek osatzen dute. Berezko euskalkia zeukaten, erroibarrera, hain zuzen ere. Gaur egun, ordea, ia galdutzat jo daiteke bertako euskara. Euskara batuaren itzalean alfabetatutako hainbat euskaldun baden arren, Erroibarko mintzaira zaharra oso hitzun gutxik dakite. 2007ko udazkenean, 4 euskaldun behintzat baziren Zilbeti, Lintzoain eta Uretan, baina horietako bat besterik ez zen 50 urtetik beherakoa. Aurizberriko ikastola da eskualdearen berreuskalduntzearen eragile nagusia, Garraaldako Institutuarekin batera.

- **Biztanleak:** 777
- **Euskaldunak:** %24,01

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **16**
- Zintak: **24**
- Pasarteak: **73**
- Transkribatutakoak: **15**
- Audioak: **22**
- Bideoak: **51**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gorka Lekarozen fondoa
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Santiago Agorreta Garde (1921-2013)



Erroibar udalerriko Mezkiritz herriko Ureta auzoan jaioa eta bertan bizi izandakoa. Bertako euskara garbi eman ahal izan zuen azkena izan zen Santiago, seme-alabei euskara irakatsi arren, haiek batuarekin nahasia zutelako. Santiagoren emazte Perpetua, euskalduna, Etxalarren jaioa zen. Santiagoren ama mezkiriztarra zen, eta aita, Agorretakoa. Amari esker ikasi zuten Santiagok eta haren anai-arrebek euskaraz. Errota izan zuten gose-denboran. Elkarriketa garaian, behorak eta behiak zituzten eta semeak gobernatzen zituen.

Francisco Beaumont Oroz (1902)

Erroibarko Urniza herrikoa. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Zubirikoa (Esteribar).

Faustino Campos Exposito (1894)

Erroibarko Orondritz kontzejuan jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen.



Florencio Erro (1929)

Erroibar udalerriko Aurizberri (Espinal) herrikoa. Artzaina. Kontrabandoan ere jarduna garai batean. Herrian geratzen den euskaldun bakarretarikoa. Justu samar egiten du euskaraz. Urepel aldeko artzainekin izan du tratua eta egiten duen euskarak hangoaren antza du.

Daniela Esain Olondriz (1903)

Erroibarko Esnotz herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Agustin Iribarren (1971)

Zilbetiko `Anso´ etxeko Luis Iribarrenen semea. Hiru anai-arrebek ikasi dute bertako euskara, baina beste biek euskara batua ere badakite. Agustin, ordea, ez zen batuan alfabetatu eta herriko euskaraz mintzo da. Aitarekin batera parte hartu zuen grabazio honetan.

Luis Iribarren (1928)



Zilbetiko `Anso´ etxeko jauna da. Ama ere zilbetiarra eta euskalduna zen, baina aita eugitarraren euskalzaletasunari esker jaso zuen Luisek euskara. Emaztea Erron jaioa du, baina hark ez zuen euskararik ikasi. `Anso´ da gaur egun arte Zilbetiko euskara gorde duen etxe bakarra, eta Luisen hiru seme-alabek ere ikasi dute bertakoa. Abeltzaintzara dedikatu da bere bizitzan, artzaintzara batez ere. Kontrabandoan ere jardun zuen apur bat.

Orreaga Iribarren Agorreta (1931)



1931n Zilbetin jaioa, herriguneko Ansorena etxean. Sei seme-alabatan laugarrena. Bi gurasoak nekazariak, aita Eugikoa (Azkarate bordakoa) eta ama Zilbetikoa (etxekoa). Aitak seme-alabak euskalzaletu zituen eta herrian euskara transmititu zuen familia bakarra izan zen. Haurride guztiek ikasi zuten ongi euskaraz. 13-14 urte zituela Iruinera joan zen ikastera, eta 23 urtetan moja sartu zen, Maria Sortzez Garbiaren Alaben ordenean. Iruñean 22 urte egin dituen arren, besteak beste Bartzelonan eta Madrilen ere bizi izan zen, eta superiora eta ikastetxe-zuzendari lanak egin zituen. Hala ere euskarari eutsi zion, nahiz apur bat galdu, eta herriko hizkeraren arrastoa oraindik oso nabarmena da haren hizkeran.

Ana Mari Lusarreta Lusarreta (1912)

Erroibarko Ardaitz herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Santiago Presto Sario (1926)



Erroibar Udalerriko Lintzoain herrian jaioa, udalerri bereko Erro herrian bizi da egun. Lintzoain herri euskalduna omen zen bere ume-denboran. Gaztetan Ameriketara egon zen artzain. Oso bizimodu gogorra omen zen. Erron abeltzaintzara dedikatu da bizi osoan. Ikazginan ere jardun zuen garai batean. Erakusketa gisa ere egin ditu txondorrak hainbat lekutan, Iruñean esaterako. Alaba bat biologoa du, Lekunberrin egiten du lan gaztagintza gaietan. Badaki euskaraz.

Marcos Saragueta Zubiri (1909)

Erroibarko Mezkiritz herrikoa. Gurasoak ere Erroibarkoak zituen; aita Mezkirizkoa bertakoa eta ama Aintzioakoa.

Inozentzio Torrea Urrutia (1938)



Lintzoaingo Martxantx etxean jaio zen 1932. urtean. Gurasoan bertakoak zituen eta nekazariak ziren. Artzaina izan da, bai Ameriketara, bai bertan. Lau senidetan laugarrena. Euskaraz etxean haurtzaroan ikasi zuen arren, Iparraldekoekin harreman handia izan zuen artzantza zela eta, eta haien euskara bereganatu zuen.

Jose Luis Urrutia Agorreta (1945)



1945ean Mezkitzen sortua, Bentarra etxean, herriguneari bertan, eta lau anai-arrebatan bigarrena. Aita herrikoa zuen, etxe horretakoa, eta ama Uretakoa (Mezkitzko leku edo auzo bat). Aitetamarek nekazari eta abeltzain familiakoa eta euskaldunak zituen biak. Amaren familia euskaltzaleari esker, Jose Luisen etxean ez zen euskara galdu, baina herri osoan transmititu zuen bakarra izan zen (Uretako ahaideak izan ezik); bi seme-alabei ere euskara transmititu die, gerora. 23 urtetan Amerikara joan zen, artzain, California aldera, eta han bizi da geroztik, baina urtero herrira itzulita egiten du. Ofizio bat baino gehiago izan ditu eta jarduerak sozialak antolatzen ibilia da.

Pello Urtasun Urtasun (1946)



1946an Aurizberrin jaioa, Elizondo edo Domingonea etxean. Aita baso-lanetan aritzen zen eta ama nekazari- eta ikazkin-familiakoa zuen. Umetan euskaraz ez zekien arren, 11 urterekin piztu zitzaion hizkuntza berreskuratzeko grina, bereziki aitaren ereduari jarraituz. 12 bat urterekin Iruñeko apaiztegira joan zen arren, ez du inoiz sorterrarekiko lotura galdu eta hango giroa jarraitu du. 1970ko hamarkadan, herrian txistua eta euskaltzaletasuna pizten lagundu zuen. Pelotaria izandakoa (palista). Lesakako Laminaciones enpresan giza-baliabideen arduraduna izana eta geroztik hainbat lanetan ibilia.

Rafael Urtasun Urtasun (1908)

Erroibarko Aurizberri herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Jose Villanueva Zandueta (1911)

Erroibarko Erro herrian jaioa. Gurasoak ere Eroibarkoak zituen; aita Errokoa bertakoa eta ama Uretakoa (gaur egun hustuta).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Lintzoainen euskara galdu da

- **Hizlaria(k)**: Agorreta Garde, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ERB-001/006
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:07:07. **Bukatu**: 00:07:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Lehen Lintzoain (ondoko herria) herri euskalduna zen guztiz, baina orain galduta dago. Kanpotik etorritako emaztekien eraginez omen.

Transkripzioa

- Eta hemen, Lintzoainen, euskeraz egiten da?
- Lintzoainen len iten ze dena euskeraz.
- Dena.
- Bai, bai. Baiña orai, akabo. Hor ere torri zire andre batzuk kanpokoak, ez zirela euskaldune, ta akabo, utzi dute. Ez dute.... gu bezala...
- O sea, andrea kanpokoak ta gizona hemengoa. Gero elkarren artian erderaz, ta umeei erderaz, ta...
- Klaro! Ta... oi... bazire zenbait etxe len iten zutela dena euskaraz ta orai batre. Utzi dute del todo. Ta... segureski, uek, andreak, ez baitzire euskaldunak, ta...
- Bai. Haiek haurrei erderaz egin ta...
- Haurrei, bai, bai.
- ... holan galdu.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Soldadutza

- **Hizlaria(k)**: Agorreta Garde, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ERB-001/010
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:12:52. **Bukatu**: 00:13:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Hiru urte eta erdi soldadu Afrikan, Alcarquivir eta Laratxen. Gutxigatik ez zen gerrara joan.

Transkripzioa

- Ta gero soldaduskara jun zineten? Jun zinen?
- E, soldadus...
- Zenbat urtekin?

- Pues e, hoguei urtekin. Pastu nitue hiru urte t´erdi soldadoskan.

- A bai?

- Bai, bai.

- Ta non? Afrikan edo?

- Afrikan, Afrikan, bai.

- Ta...

- Afrikan. Ta hori nere lagune ere han egon ze nerekin.

- A bai, e?

- Denbora guzian.

- Arraiago be bai, e?

- Bai, bai, bai, bai.

- Ta Afrikan zein tokitan egon zinen?

- E... Alcazarquivir ta Laratxe. Ez dakit aitu izen duzen. Alcazarquivir da herri bet, franko haundie, baiña dao... ee... itsasotik... hemendik Iruñe...

- Non, basamortu aldera edo hola?

- Eeee...

- Ez?

- Ez. Ta itsasora hurbil. Laratxe...

- Itsasotik hurbil.

- Bai. Laratxe dao itsaso baztarrean, ta hori, hogeita hamar edo... kilometro barnaxago.

- Ya, ya, ya, ya.

- Alcazarquivir.

- Ta Gerra Zibilak e... zenbat urtekin harrapatu zintuen ba?

- E, pues Gerra Zibila ni gelditu nitze... e... joateko puntuen.

- A bai, e?

- Bai, bai, bai.

- Orduan urte asko dituzu!

- Pues asko! Seguro!

- Hagitz ongi zara, e?

- Naiz...

- Ze gure ai... nere aita, Gerra...

3. Baserria

3.1. Zerri-hiltzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Esain Olondriz, Daniela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ERB-011/001
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Zerri-hiltzearen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Zuk badakizu zerria hiltzeko zer egin behar den?... Zer egin behar da? nola harrapatzen da? nola eramaten eta...?

- Iru edo lau gizonak, juntatzen tzuten? ta, gero?... il, il tzien, il tzii, iltzen tzute, tzerria.

- Bai, baina, eraman behar zen... nora eramaten zen zerria?

- Ttxerria?

- Non paratu behar zen?

- Emen, etxe guzietan.

- Mahai baten gainean edo?

- Bai, gero... almuerzo.

- Baina, eta nola hiltzen da?

- Nola eitten da?

- Nola hiltzen da? hiltzeko, zer egiten dute?

- Kanabita?... sartu kanabita, ta hala! ta etxeko andrea? bañera batian? balde batian? pues, artu... odola? eta gero, atsaldëan?... dena garbitu bien, ta... gero? pa hacer las morcillas...

- Nola erraten da?

- Tripotak, tripotak; eta gero?... etxetan, ematen die... etxe ba-, batëa? eta gero, aek, iltzen tzutenak, itten zuten? ta, berriz, buelta ona-, onara, patzeuten ordea.

- Ordea, e?

- Ordea, ala zen... 'la costumbre' erdera, sí. Beh! no, no... saco yo ahora nada de eso.

- Eta kanabita nondik sartzen zuten?

- Lepotik!

- Eta zerriak zer egiten zuen orduan?

- Jo! moi-, mobimuentuak, orduen.

- Bai?

- Ah, bai-bai...

- Marruxka?

- Bai, bai.

- 'Marruska' erraten da?... al gritar del cerdo ¿cómo le decian? (Erantzunik ez)

- Leku batzuetan paratzen dute, horrela, atarian...

- Bai.

- Nola paratzen dute?

- Tzilintzan, korda... korda batekin tzilintzan.

- Zertarako?

- Biramonean, gero, iten tzuten puskak... eh!

- Eta hil ondoan pasatzen zaio zerbait gainetik?

- Iten tzuten...

- Garbitzeko, zerbait egiten da?

- Bai, iten tzuten? sua, sua, eta... orduen? belarra edo iratze o... iten tzuten... ta, aekin? sua, sua ematen tziote, bilöak erretzeko; gero, kanibeteki? todo bien limpio, ongi garbituä?... pues hala! ori it(t)en tzuten. Gero, atsaldian, andreak? pues, iten tzuten... tripotak; (...) no, la sangre, como ya se cogía a la mañana, artsaldean iten tzuten tripotak.

- Eta hurrengo egunean, biharamonean, zer egiten zen?

- Orduen txistorrak, klaro...

- Etxerako? edo saltzeko?

- Eeez!... pa las familias, etxeko dena.

- Eta ordea nori ematen zitzaion? apezari?

- Bizpiru etxe... ta etxetan, donde había... parientes; sí, esa costumbre era.

- Apezari ere bai?

- Bai-bai-bai. Pues ahora, eztago fitsik.

- Ongi, oraindik ere oroitzen zara...

- Aah! bai, bai; saber mucho, lo que no sé es seguir.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolara Mezkitzera (ERB-001/002)

Lagunak bazuen eskola franko. Eskolara herrira, Mezkitzera joaten zen. Baina berez Ureta ez omen da Mezkitzekoa.

2. Mezkitzen euskara galdu da (ERB-001/003)

Etxean euskaraz egiten zuten beti. Mezkitzen ere baziren familia batzuk egiten zutenak, baina gero guztiz galdu zen. Baziren han euskararen kontrarioak, politikarekin nahasten dutelako.

3. Semeak eta ilobak ere euskaraz (ERB-001/004)

Semeak eta ilobak ere badakite euskaraz, baina berak emaztearekin, eta gurasoek elkarrekin erdaraz egin ohi zuten, eta ilobak ere lagunekin aiseago erdaraz euskaraz baino.

4. Laborari lanak (ERB-001/007)

"Brabana" (goldea) erabiliz iraultzen zuten lurra. Galsoroak lantzeko erabiltzen zuten

5. Etxea birraitonak egina (ERB-001/008)

Uretako Jaurerriaren jabeak salgai ipini zuen eta Mezkitzetik hurbil dagoen arren, Esnotz herrikoak erosi zuten. Gero, jabe berriek zatika-zatika saldu zuten eta birraitonak erosi zuen lur zati bat eta orain bizi diren etxea eraiki zuen.

6. Soldadutza luzea II. Mundu Gerragatik (ERB-001/012)

Gerra ondoren egon zen soldadu. Hiru urte eta erdi eduki zituzten II. Mundu Gerra zela eta.

7. Adina eta osasuna (ERB-001/013)

"Ja" egin gabe ezin daiteke egon. Gidatzeari utzi zion mokorretik operatu zutenean, eta damu da neurri batean, baina familiak hori gomendatu zion eta arrazoi zuten beharbada.

8. Errota zuten gose denboran (ERB-001/015)

Ez zuten goserik pasatu. Errota zuten eta han ehotzen zen inguruko garia. Euren ere erosten zuten garia, eho eta gero saldu. Ahal zutenean ordaintzen zuen jendeak, orduan ez baitzegoen sosis. Ez zuten euren errota prezintatu.

9. Etxe eta leku ederra (ERB-001/017)

Leku ederra da, baina inguruan arbolak handitu egin dira, sastrakak ez dira garbitzen eta bazterrak ixten ari dira.

10. Morroiak eta neskameak (ERB-001/019)

Bederatzi anai-arreba izan dira. Neska eta "mutil" bat fijo edukitzen zuten. Morroi bat Lusarretakoa izan zuten. Gero Saraguetara joan zen bizitzen. Haren historia kontatzen du.

11. Lusarretan eta Saraguetan euskararik ez (ERB-001/020)

Hurbil dauden Artzibarko Lusarretan eta Saraguetan ez da euskararik egin bere denboran. Arrietan ere ez. Arreba euskalduna da, Esnotzen bizi da, baina ez zien seme-alabei euskaraz irakatsi. Orain damu dira.

12. Frantsesa ere ikastea komeni (ERB-001/022)

Euskara lehenetariko hizkuntza. Euskarak ez du trabarik egiten. Frantsesaren bazterretan bizi dira. Frantzian bizi da emaztearen ahizpa bat. Bere irudikoz, frantsesa ere ikasi beharko zen.

13. Behorrak eta behiak Sorogainen (ERB-001/024)

Sorogainen, Urepeleko mugan behorrak eta behiak dituzte. Semeak gobernatzen ditu.

14. Sagardoa (ERB-001/026)

Ez da "sagar-ardo" zalea izan. Lehen ez zen asko preziatzen sagardoa baina orain bai. Anitzek egiten dute.

15. Eskualdean geratzen diren euskaldunak (ERB-002/002)

Bizkarretan ez da euskaldunik. Mezkitritzen bada bat eta Zilbetin ere bai beste bat.

16. Ameriketan artzain (ERB-002/003)

Etxean ikasi zuen euskaraz. Ameriketan egon zen artzain 11 urtez. Ez zen diru asko irabazten baina kanbiora oso ongi irteten zen. Han diru pixka bat egin eta itzuli zenean ezkondu egin zen. Abeltzaintzara dedikatu da. Ez zuen fabrika maite.

17. Alaba nagusiak badaki euskaraz (ERB-002/004)

Alaba biologoa du. Badaki euskaraz. Lekunberrin egiten du lan gaztagintza laborategian. Beste alabak ez daki. Erron gutxi egiten da. Kazetaria omen den herriko euskaldun batez mintzatzen da.

18. Nevadako artzaintza kontuak (ERB-002/005)

Oso bizimodu gogorra artzainena Ameriketan. Urtebete eta gehiago egon ohi ziren herrira jaitsi gabe. Zenbaitek irabazten zuen guztia gastatzen zuen. Koioteekin ibiltzen ziren larri.

19. Arbaso guztiak euskaldunak (ERB-002/007)

Emaztea etxe honetakoa du (Erro) baina gutxi egiten du euskaraz. Haren "apitxik" (aitonak) bazekien. Bere arbaso guztiek egiten zuten. Umetan erdara gutxi zekiten. Eskualdeko zenbait herritan dauden euskaldun apurren berri ematen du: Usetxi-n, Aurizberri-n...

20. Ikazkinan ibilia (ERB-002/009)

Txikitatik lanean. Ikazkintzan ere ibilitakoa da gaztetan. Erakusketa gisa ere egin du harrezkero Iruñearen eta. Txondorra nola egiten den kontatzen du

21. Ardi klaseak (ERB-003/002)

Bi ardi-klase ditu: "Buru beltzak", eta "Lakonak", Frantziatik ekarritakoak. Bigarrenek lehenek baino esne gehiago ematen dute. Esnea ondo saltzen da. Orain ez dute gaztarik egiten

22. Eguraldi txarraz hobe barnean "lakona" (ERB-003/004)

"Arrunt kario" da pentsua. Neguan beti barnean ardiak, baina udan mendian. "Buru beltza", hemengoa, gogorragoa da, baina besteak, lakonak, bustitzen badira, lau edo bost egun behar dituzte idortzeko.

23. Urepeleko artzainekin tratua (ERB-003/005)

Mugaldeko mendietan bazkatzen dira Aurizberriko ardiak. Diputazioak sailak hesitu ditu. Urepeleko artzainekin harremana dute.

24. Aurizberrin haurtzaindegia eta ikastola (ERB-003/008)

Ilobek badakite euskaraz. Aurizberrin badira haurtzaindegia eta ikastola. Gero, Garraidan da eskualdeko institutua.

25. Mugaz handiko artzainekin ikasi du euskara (ERB-003/010)

Aitak bazekien euskaraz, baina ama Agoitz ingurukoa zen eta ez. Euskara mugaz bestaldeko artzainekin ikasi du, batik bat.

26. Kontrabandoan (ERB-003/012)

Asko ibili zen kontrabandoan. 25 kiloko "paketak" Urepel aldean hartu eta Agoitz ondoko errepideraino eramaten zituzten. Nylona, puntillak, kobrea... Karabineroei eskupekoa eman ohi zieten.

27. Nekazari gutxi Aurizberrin (ERB-003/014)

Jende gutxi bizi da laborantzatik eta artzaintzatik. Oso lan lotua omen da.

28. Gerra eta gose denbora (ERB-003/016)

Sei edo zazpi urte zituen gerra etorri zenean. Gerra denboran, adineko gizonak behartuta zeuden mugan guardia egitera. Gose denboran irina Urepeletik ekartzen zuten bizkarrean. Urepel Erroibartik bi ordu eta erdira dago.

29. Kontrabandoaz berriro (ERB-003/018)

Hegoaldetik Frantziara zaldiak pasatzen zituzten. "Aretxiak", lau hilabete inguruko txahalak ekartzen zituzten handik hona.

30. Iparraldekoekin espaineraz gehienbat (ERB-003/019)

Iparraldekoekin gazteleraz egiten zuten gehienbat. Iparraldeko askok daki gazteleraz, hegoaldetik joandako asko bizi delako han.

31. Erromes asko pasatzen da (ERB-003/020)

Orain erromes asko pasatzen da. Orreagatik irten eta zein ibilbide jarraitzen duten kontatzen du.

32. Behorra (ERB-003/022)

Behorra beti jaten ari da. Goizeko seietan egiten du lo-kuluxka bat, zutik

33. Aurkezpena. Euskara gutti Zilbetin (ERB-004/001)

Euskara gutxi egiten da Zilbetin. Gurasoekin beti euskaraz egiten zuten, baina haurrideen, anai-arreben artean gutxi. Hil direnek ere gehienek erdaraz egiten omen zuten. Nahiz eta ondo jakin ez. Eta bakoitzak bere umeekin euskaraz.

34. Usetxi eta Iregin euskaraz (ERB-004/002)

Erroibarren gutxi egiten omen da euskaraz, baina Eugin eta Esteribarko Iregi eta Usetxin asko.

35. Erron erosketak (ERB-004/003)

Errora joaten ziren erosketak egitera. Zaldian askotan. Zubirira ere bai inoiz.

36. Bazen eskola Zilbetin (ERB-004/004)

Herrian bazen eskola. 14 urte arte berez, baina askotan kale egiten zuten baserri-lanetan lagundu behar zelako.

37. Ardien inguruko kontuak (ERB-004/005)

Ardiak jetzi eta abar egin behar izaten zuen. Amak gazta egiten zuen.

38. Lehen ez zen hainbeste oihan (ERB-004/006)

Sei anai-arreba ziren. Lehen familiak handiak ziren eta nonahi sartzen ziren. Landa garbiagoa zen lehenago. Baina jendeak alde egin duenetik zikindu egin dira bazterrak.

39. Ilobak ongi egiten du euskaraz (ERB-004/007)

Seme-alabek eta ilobak ondo egiten dute euskaraz. Zubirira joaten dira haurrak ikastolara.

40. Neska-mutikoak lanean (ERB-004/009)

Seme-alabak lanera eramaten zituen. Bera txikia zela ere gauza bera egiten zuten. Artalde handia izaten zuten lehen, eta behiak ere beti izan dituzte. Baina haziendak ez du dirurik ematen egun.

41. Zubiriko "Magnesitas" fabrika (ERB-004/010)

Magnesitas fabrikan harria xehatu eta prozesu baten ondoren ongarria (abonoa) egiten da. 100 langiletik gora izango ditu. Munduko harrobi bakarrenetarikoa omen da klase horretarik.

42. Zilbetiko euskaldun bakarra (ERB-004/012)

Urepelekoekin euskaraz zein gazteleraz. Zilbetin bera da euskaldun bakarra. Eugin baserritarrek badakite, baina herrian gehienak erdaraz

43. Gerra eta gose denbora (ERB-004/014)

Hiru urte zituen gerra sortu zenean. Aita ez zen gerrara joan. Beti izaten zen zerbait jateko. Jeneroa errekiatzuten zuten, aretxeak (txahalak) ere bai.

44. Gerra denboran bi alderdietakoak elkar hiltzen (ERB-004/016)

Aita Francoren aldekoa zuen. Gerra denboran, Nafarroan hildako asko egon zen. Elkar hiltzen jardun zuten bi alderdietakoek.

45. Guardia zibilek aita estutu zuten jendea sala zezan (ERB-004/018)

Guardia zibilak etxera etorri, aita gela batean sartu eta estu hartu zuten jendea sala zezan. Baina aita ez zuen inor salatu eta Zilbetin ez zuten inor hil.

46. Emaztearen etxera ezkondu zen (ERB-004/020)

Aita Eugikoa eta ama etxekoa (Zilbetikoa). Emaztearen bi anai Ameriketara joan ziren eta emaztea geratu zen etxejabe. Bizitzeko lain irabazi izan du.

47. Ez da infernuri, denok joango gara zerura (ERB-004/022)

Sinestuna da. Bere ustez ez da infernuri. "Jainkoa hil bazen guregatik, denok bidaliko gaitu zerura". Hala behar omen du.

48. Kontrabandoan puxka bat ibilia (ERB-004/023)

Puxka bat ibili zen kontrabandoan baina gutxi. Ez daki zer egoten zen "paketen" barruan. "jornaliko" bat ematen zien eta aurrera. Karabineroekin aurkituz gero, bota paketak eta aurrera. Ez zuen langintza horretarako balio.

49. Familia alaia izan da berea (ERB-004/025)

Esaten omen dute Erroibar inguruko euskara "franko garbie" dela. Etxean oso alai bizi izan dira. Bizitzari alderdi onetik begiratu behar zaio.

50. San Juanetako ohiturak Urnizan; alorretan gurutzak (ERB-014/001)

San Juan bezperan sua egin eta hauxe esaten zuten: "Xarna fuera, ezkabie kanpora, garie ta artoa Ezpantila;ara". Gazteek suaren gainetik salto egiten zuten. San Juan egunean iratzearekin, ereinotzarekin eta beste landare batzuekin gurutzak egin eta bedeinkatu egiten ziren, gero alorretan ipintzeko.

51. Aintzioan sua, leloa eta bazkari ederra San Juanetan (ERB-015/001)

San Juan bezperan sua egiten zen; "Sarna fuera, kukusoak lepera!" esaten zuten. San Juan egunean festa handia egiten zen. Berari sukaldari lana egitea tokatzen zitzaion.

52. Gabon-gaueko enborra Aintzioan (ERB-016/001)

Eguberrietan, gaueko meztatik etxeratutakoan, familiako kide bakoitzak egur bat bota behar izaten zuen sutara. Jesus haurtxoa berotzeko zela esaten zen.

**53. Errege-eguneko karta-jokoa eta zintzarri-jotzea
Aintzioan (ERB-016/002)**

Errege eguneko ohiturak. Zintzarri-jotzea.

54. Esnotzen, San Juanetan, sua eta leloa (ERB-017/001)

San Juan bezperan sua egiten zen eta "Sarna fuera, gari ta artöak Española;
sarna fuera, zorriak Gipuzkoara" esaten zuten.

55. Esnotzen, Urteberriz, ospakizun gutxi (ERB-017/002)

Esnotzen ospakizun gutxi izaten zela Urteberri egunean dio.

56. Zilbetin, San Juanetan, sua eta leloa (ERB-018/001)

San Juan bezperan sua egiteko ohitura. Zer esaten zuten gainetik salto
egiterakoan.

**57. San Juan sua Lintzoainen; Gurbizarko iturria
(ERB-019/001)**

San Juan bezperan sua egiteko ohitura. Gurbizar inguruan San Juan iturria
zegoen. Hango ura bistarentzat ona omen zen.

**58. Mezkirizko sua, San Juan edo San Pedro bezperan?
(ERB-020/001)**

Beraiek San Pedro bezperan egiten zutela sua dio. San Juan bezperan, berriz,
gaztetxoek. Suaren gainetik salto egin eta "Sarna fuera" esaten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com